



Eskualdeko lau bertsolari lehiatuko dira Txapelketa Nagusian

URRIAREN 9TIK ▶ Amaia Agirrek, Bixente Gorostidik, Jexux Mari Irazuk eta Aitor Mendiluzek jardungo dute

EPAILEAK ▶ Epailan lanetan ariko dira Josu Telleria billabonatarra eta Felix Irazustabarrena alegiarra ▶ 2



Agirre, Irazu, Lujanbio, Mendiluze, Martin, Gurrutxaga, Sarriegi, Uranga eta Goikoetxea, atzo. J. GOIKOETXEA

LIZARTZA ▶

Gaur ekingo diote Kaxiano Ibaregurenen omenezko asteari

Hitzaldiak antolatu dituzte gaur eta bihar, eta jaialdiak asteburuan ▶ 6

J. M. ERASUN ▶
SEGALARIA

«Azkenaldiko mailarik altuena izan du finalak»

«Pozik» dago Euskal Herriko Txapelketa irabazita; 'Urki' 3. izan da, eta Aranalde 4. ▶ 3



Erasun, igandean. K. ALDUNTZIN

VILLABONA ▶

Txupinazoak eman dio hasiera Jubilatuen Asteari

Gaur, karta jokoetan ariko dira; igandera arte izango dute jai giroa ▶ 5

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAREN egoitzara

Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitzako Arakindegia jatetxean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaticoak.

Argazkien erakusketa egingo du, Tolosako ALDEZAHARRA elkarteak



bidalizure argazkiak!

argazki
hitza lehiaketa

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ▶

Eskualdeko lau bertsolarirekin abiatuko da Txapelketa aurten

'Pasa hitza' lelotzat hartuta, urriaren 9an Lekunberrin hasiko da aurtengo edizioa; abenduaren 18an B.E.C.en jokatu den finalarekin amaituko da



Txapelketa Nagusian parte hartuko duten bertsolari gipuzkoar batzuk, atzo, Donostiako aurkezpenean. J.G.

JULEN GOIKOETXEA

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren Gipuzkoa mailako aurkezpena egin zuten, atzo, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Prentsaurrekoa txapelketako arduradun Andoni Otamendik eta Gipuzkoako Bertsosale Elkartearen lehendakari Felix Irazustabarrenak eman zuten. Horiekin batera, Gipuzkoako hainbat bertsolari izan ziren bertan.

Prentsaurrekoari Otamendik eman zion hasiera. Txapelketako arduradun gisa, aurtengo edizioaren inguruko xehetasunak eman zituen. *Pasa hitza* da txapelketaren leloa. Horren haririk, Otamendik adierazi zuen ahalik eta jende gehienarengana heltzeko xedea dutela. «Bertsosaren lurraldea ahalik eta gehien zabaltzea da gure helburua». Euskara ikasten ari direngana heltzea jarri zuen adibidetzat. Txapelketarako Oreaka TX taldeak egin duen abestia ere aurkeztu zuten atzokoan. Urriaren 9an hasiko den edizioari begira, komunikazio lan handia egin dutela jakinarazi zuen Otamendik. «Kazetariaren lana errazteko ikastaro bat antolatu dugu, eta hedabideei erraztasunak emango dizkiegu saioetarako paseak emanez». Parte-hartzeari buruzko datuak ere eman zituzten. Txapelketa nagusia, 38 bertsolari izango dira lehian. Horietatik lau eskualdekoak dira. Bixente Gorostidi amezketarra, Aitor Mendiluze andoaindarra baina Iruran bizi dena, Jexu Mari Irazu larrauldarra eta Amaia Agirre billabonatarra.

Agirrek HITZARI adierazi zionez, finalurrekoetan sartzea du helburu. «Lehenengo saiotik hasi beharrak beldur pixka bat ematen dit». Beste arerioei errespetua galdu gabe, urduritasunaren eraginez, bere burua ikusten du arerio nagusi bezala. «Final-laurdenetako saioan badakit gaizki pasatuko dudala, baina hurrengo fasera pasatzea lortzen badut, presio gutxiagorekin hobeto kantatze eta gozatzeko aukera izango dut».

Prentsaurrekoaren bigarren zatian Felix Irazustabarrenak hartu zuen hitza. Gipuzkoa bertsosalez gehien dituen herria

SAIOAK ▶

Euskal Herriko boko ugari bisitatuko ditu txapelketak. Nahiz eta eskualdean ez den saiorik izango, hona hemen izango diren saioak eskualdeko partaidetzarekin.

Urriak 9. Lekunberri: Bixente Gorostidi eta Amaia Agirre.

Urriak 15. Idiazabal.

Urriak 16. Zornotza.

Urriak 22. Uztaritze.

Urriak 23. Arrasate.

Finalurrekoak. Sei saio izango dira. Bertsolari bakoitzak bi saiotan kantatuko du. Eskualdetik, Irazu eta Mendiluze daude sailkatuta alde zuretik. Irazuk azaroaren 6 eta 26an kantatuko du, eta Mendiluzek azaroaren 13 eta 26an.

Finala. Abenduaren 18an jokatu da Barakaldoko B.E.C.en. Aldez aurretik 2001eko txapelketa eta azpitxapelketa daude sailkatuta; Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio, hurrenez hurren.

dela adierazi zuen berak. «Urtean 600 saio egiten dira probintzia mailan. Bestalde, hezkuntza arautuarenean barruan, 400 ikasle inguru bertsosaren inguruan ikasten ari dira Bertsosale elkarteak bideratuta». Gipuzkoar bertsolariak kopuruz gehiengoa dela eta txapelketak bertsosalez gipuzkoarrengan interes berezia piztu behar duela adierazi zuen. Finalaren leku aldaketari buruz galdetuta, Irazustabarrenak erantzun argia eman zuen: «Hori aurrerapausutzat jo behar da, dudarik gabe. Finala Donostiatik B.E.C.era eramateari ondo deritzot, bertsosaren hedapenaren adierazgarri bairta».

Behin azalpen guztiak emanda, protagonista nagusiak diren bertsolariei kantuan haste bakarrik falta zaie. Txapelketari hasiera emago dion lehen saioa urriaren 9an jokatu da, Lekunberrin. Bertan eskualdeko bi ordezkari, Agirre eta Gorostidik, hartuko dute parte. Ez da erraza izango B.E.C.en jokatu den finalera sartzea dagoen maila ikusita. Izan ere, azken urteotan puntan ibili direnek hor jarraitzen dute; hala ere, orain dela lau urtetik gaur arte gauzak aldatu dira eta, agian, finala tokiz aldatzeak norbaitengan eragina izango du.

ESKUALDEKOAK ▶ LAU BERTSOLARI, BI EPAILE

Ondokoak dira eskualdeko ordezkari gisa txapelketan parte-hartuko duten lau bertsolariak eta bi epaileak.

BERTSOLARIAK

Amaia Agirre. Lehen egunetik hasi beharko du lanean 28 urteko billabonatarra. Gipuzkoako Txapelketan finalista izan zen, eta bere bigarren txapelketa izango da.

Bixente Gorostidi. 32 urteko amezketararentzat hirugarren Txapelketa Nagusia izango da

hastear dagoena. Agirrekin batera, lehen egunetik hasiko da kantuan.

Jexu Mari Irazu.

Finalerdietan sartuko da txapelketan Hernanin bizi den larrauldarra. 33 urte beterik dituela, hirugarren Txapelketa Nagusiari ekingo dio.

Aitor Mendiluze. Iruran bizi den andoaindarra ere, hirugarren aldiz hartuko du parte Txapelketa Nagusian, 30 urterekin. 2001eko Txapelketa Nagusian hirugarren izan zen,

Andoni Egañaren eta Maialen Lujanbioaren atzetik.

EPAILEAK

Felix Irazustabarrena. 44 urteko alegiarrak laugarren txapelketa du aurtengoa epaile gisa. Gipuzkoako Bertsosale Elkartearen lehendakaria da gaur egun.

Josu Telleria. 38 urteko billabonatarra lehen txapelketa izango du epaile lanetan. 2001eko txapelketan ordezkari epaile gisa aritu zen.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

EUSKAL HERRIKO SEGA TXAPELKETA ▶

Eskualdekoak gustura daude igandean jokaturako finalarekin

Erasunek jantzi zuen txapela, Jesus Mari Ormaetxea *Urki* hirugarren gelditu zen eta Mikel Aranalde, berriz, laugarren



Igandean jokatu zuten Euskal Herriko Segak Txapelketako finalean Aranalde eta Erasun lehian. KOLDO ALDUNTZIN

JUAN MANUEL ERASUN ▶ EUSKAL HERRIKO SEGA TXAPELDUNA

«Finalean azken urteotako mailarik altuena zegoen»

Gustura ageri da Juan Manuel Erasun zizurkildarra txapela eskuartearen duela. Estreinak jokatu zuten Euskal Herriko Segak Txapelketan lehena izatea lortu zuen.

Zer moduzkoa da Euskal Herriko txapela?

Niretzat berria. Izan ere, lehenengo aldian zen txapelketa honetan parte hartzen nuela. Berrria baina ederki kostatakoa.

Zer balantze egiten duzu igandeko finalaz?

Oso balantze ona. Oso gustura nago egin nuen lanarekin. Belar ona zegoen, nahiz eta zelaia ez zen hain ona. Gainera, egu-

rdia lagun izan genuen arratsalde osoan.

Gainerako finalistek ez zizuten batere erraz jarri, ezta?

Egia esan, ez. Azken urteotan Euskal Herriko Segak Txapelketan egon den mailarik altuena zegoela uste dut. Hala ere, abiadura handia jarri nuen hasieratik, eta horrela jarraitu nuen ez saio guztian, lehena izatea lortu nuen.

Datorren igandean apustua errepikatzekotan zarete.

Datorren igandeko prestatu duguna ez da apustua, orain arte ez dugu egin igandekoa bezalako ikuskizunik; binaka



KOLDO ALDUNTZIN

ariko gara lehian. Lau segalarion ideia izan da, eta Hernaniko jatetxe bateko zelaia alokatu dugu horretarako.

Igandean ere irabazteko prest al zaude?

Prest bai, baina ikusi egin beharko da zer gertatzen den.

NEREA LIZARTZA

Igandean jokatu zen Errezilen Euskal Herriko Segak Txapelketako finala. Eguraldia lagun zutela aritu ziren lehian lau finalistak; tartean hiru eskualdeko zeuden. Juan Manuel Erasun zizurkildarrak jantzi zuen txapela; «berria» zuen, Euskal Herriko txapelketan estreinakoz hartu zuen parte, eta lehena izatea lortu zuen. Fin aritu zen txapelduna, baina baita gaintzekoak ere.

Hirugarren egin zuen 2003an Euskal Herriko txapelduna izan zen Jesus Mari Ormaetxea *Urki* orendaindarrak. «Konformatzeko moduan» dagoela adierazi dio HITZARI. «Erasunek eta Mitxelenak maila handia erakutsi zuten; niri ezaugarri batzuk falta zitzaizkidan bi horiei gaintzeko», gaineratu zuen. Laugarren postuan gelditu zen, berriz, Mikel Aranalde orendaindarra. Finala amaitu ostean komunikabideei zera adierazi zien: «Sekulako lana egin dugu denok; gaur guztiak neurritz kanpo ibili gara. Urte ona egin dut, baina azken hilabete hau oso luzea egin zait, eta ilusioa ere apur bat galdu dut».

Lau segalariek datorren igandean, hilaren 25ean, izango dute hurrengo hitzordua; izan ere, Hernanin ariko dira berriz ere lehian. Oraingo honetan ikuskizuna berritzaile bat egingo dute; binaka ariko dira: Erasun-Aranalde, eta Urki-Mitxelena. Lau segalariona izan zen ideia, hau eta Hernaniko jatetxe bateko zelaia alokatu dute horretarako. Helburua ikusleei ikuskizun berria eta entrenigarria eskaintzea da.

SAILKAPENA ▶

2005eko Euskal Herriko Segak Txapelketa

Izena	Kiloak
1. Juan Manuel Erasun	4.120,5
2. Bixente Mitxelena	3.914
3. Jesus Mari Ormaetxea <i>Urki</i>	3.703
4. Mikel Arranalde	3.625

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Sar zaitzez eskualdeko egunkariaren web orrialdean eta eman ezazu zure iritzia ondorengo gaiaren inguruan: Zer iruditzen zaizu hurrengo Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa Usabal kiroldegian egitea?

GIZARTEA ▶

Brendan Costello-ren hitzaldia

Datorren ostiralean, hilak 23, Brendan Costello-k hitzaldia eskainiko du Tolosako Kultur Etxean. Gaia, *Zeinu hizkuntzaren linguistikarako sarrera* izango da. Hitzordua, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

KIROLAK ▶

Tolosaldea IKTn izen-emate epea zabalik da

Tolosaldeko Igeriketa Eskolak kurtso berria hastear du Usabalgo kiroldegi berrian. Irakasle titulodunak aritzen dira eskolak ematen, eta lau igeriketa estiloak erakusten dizkiete ikasleei. Izena eman edo informazio gehiago nahi duenak 667 63 17 42 telefono zenbakira dei dezake. Bestela, kiroldegiko bulegora joan behar da, 09:00-etatik 13:00-etara.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotiza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

FUTBOLA

Hirugarren Maila.

Tolosa-Lagun Onak	0-0
Sailkapena ▶	
1. Beasain	9 puntu
2. Sestao	8 puntu
3. Laudio Sall.	8 puntu
4. Gernika	7 puntu
5. Arenas	7 puntu
6. San Pedro	7 puntu
7. Amorebieta	7 puntu
8. Tolosa	6 puntu
9. Eibar	6 puntu
10. Elgoibar	6 puntu
11. EHU/UPV	6 puntu
12. Aurrera Vitoria	5 puntu

13. Baskonia	5 puntu
14. Aurrera O.	5 puntu
15. Zamudio	4 puntu
16. Santurtzi	4 puntu
17. Indaubeu	2 puntu
18. Gebo	2 puntu
19. Aguirain	1 puntu
20. Lagun Onak	1 puntu

Lurraldekako 2. Maila.

Axular-Inburre	0-2
Lazkao-Amaroz	2-2
Tolosa B-Lasarte Oria	2-1
Sailkapena ▶	
1. Inburre	3 puntu
2. Tolosa	3 puntu

3. Amaro	1 puntu
4. La Salle	1 puntu
5. Lazkao	1 puntu
6. Ordizia B	1 puntu
7. Munibe	0 puntu
8. Lasarte Oria	0 puntu
9. Axular	0 puntu

Jubenien Nazional Maila

Barakaldo-Tolosa	2-1
Sailkapena ▶	
1. Eibar	6 puntu
2. Athletic	6 puntu
3. Gurutzeta	6 puntu
4. Real Sociedad B	4 puntu
5. Cultural	4 puntu

6. Danok Bat	4 puntu
7. Retuerto	3 puntu
8. Antiguoko	3 puntu
9. Arenas	3 puntu
10. Barakaldo	3 puntu
11. San Ignacio	1 puntu
12. Tolosa	1 puntu
13. Hernani	1 puntu
14. Indartsu	0 puntu
15. Romo	0 puntu
16. Santuburu	0 puntu

FUTBOL 7

Hirugarren Maila.

Caravanas Tolosa-Viva inmob.	3-4
Sailkapena ▶	

1. Garbera Sagardotegia	3 puntu
2. Sagardotegi Akelenea	3 puntu
3. Urkatx arraindegia	3 puntu
4. VIVA INMOB-GR inTheLine	3 puntu
5. PC Byte informatika	3 puntu
6. Flumäher	3 puntu
7. Talleres Usurbil	3 puntu
8. Jarraitu akademia	1 puntu
9. Bodega El Lagar	1 puntu
10. Caravanas Tolosa	0 puntu
11. Redcom Vodafone	0 puntu
12. EnteraT.com	0 puntu
13. Research systems	0 puntu

Lehen Maila.

Bataplán-Ibarrako Gazte Asanblada	5-1
-----------------------------------	-----

Sailkapena ▶	
1. Bataplán	3 puntu
2. Euskalduna San Migel	3 puntu
3. Knauf Decorac. Nuñez	3 puntu
4. Easo Motor	3 puntu
5. Zuma G.H.	3 puntu
6. Pub Oasis	3 puntu
7. La kabutzia	1 puntu
8. B. Ignacio-Hondarribia	1 puntu
9. Zibibito Dance Club	0 puntu
10. Kroms	0 puntu
11. Emengo Artekaritza	0 puntu
12. Continental industrias	0 puntu
13. Jalgi kafe antzokia	0 puntu
14. Ibarako Gazte Asanblada	0 puntu
15. Sariketa	0 puntu

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Hirugarren berdinketa lau partidatan

Hutsna amaitu zen larunbatean Lagun Onak eta Tolosaren artekoa, Berazubín

NOELIA LATABURU

Laugarren jardunaldiari zegokion partida jokatu zuen larunbatean Tolosa C F taldeak, Lagun Onak bisitari izan zuten, Berazubín. Luluagaren mutilek ez zuten aurkarien atea zulatzerik izan eta, beraz, hutsna amaitu zen markagailua («neurketa gogor eta garbi batean»). Giro polita sortu zen Berazubín, ikusle andana bildu baitzen bertan. Batez ere lehen zatia izan zuten txarra bi taldeek, akats ugariarekin eta jokaldi arriskuak sortu ezinik. Lagun Onak taldekoek presio handia egin

zuten defentsan eta, ondorioz, tolosarrek ezin izan zuten bere joko ona erakutsi. «Baloí gehienak ez genituen jaisterik izan, eta horrek gure jokoa kalte zuen», azaldu du Luluagak, urdinen entrenatzaileak. Bada, lehen zatia «akats ugariarekin eta jokaldi arriskuak sortu ezinik» amaitu zen. Haatik, indartsu irten ziren berdegunera bigarren zatian etxeokoa, eta euren esku izan zuten garaipena. Urrezko bi aukera izan zituzten Tolosako jokalariek. Lehenengoa Crespo izan zuen 63. minutuan, Regillagaren erdiketa bat bu-



Hutsna egin zuten Berazubín Tolosak eta Lagun Onak-ek. IMANOL GARCIA

ruz zutoinera bota zuenean. Bigarren aukera, berriz, neurketako 90. minutuan Ekaitzek eginitako errematean heldu zuen, baina azken hau ere zutoina jo eta ate kanpora joan zen. Honenbestez, garaipenak alde egin zion Tolosari. «Hiru puntuak eskuratu ezean, bakararekin konformatu beharko dugu», adierazi du Luluagak. Bigarren zatirekin pozik azal-

du da entrenatzaileak, «aurkariaren presioa gainditu eta baloia jaiste» lortu baitzuten. Talde guztia, orokorrean, sentsazio onarekin joan zen aldageletara eta giro ona izateak aurrera jarraitzeko gogoak ematen dizkie jokalariei guztiei. «Balanitze positiboa egin behar dugu, izan ere azken bi partidetan ez dugu golik jaso; honek defentsan indartsu gabiltzala esan

TOLOSA ▶ O

LAGUN ONAK ▶ O

Tolosa. Apeztebea; Lacalle; Unai; Jon; Aimar; Romero; Orue; Azpiroz; Blanco (Crespo); Illunbe (Ekaitz); Regillaga (Aierbe).
Lagun Onak. Tejera; Martinez; Ayuso; Odriozola; Mendiñeta; Romero; Sentesteban; Muñoz (Sarasola); Erquicia (Cristopher); Roteta eta Orbeogozo (Sagarzazu).
Arbitroak. Asier, Sagastegi eta Bollero. Txartel horiak atera zizkien Lagun Onak taldeko Muñoz Romero eta Mendiñeta jokalariei.

nahi du. Azkeneko norgehiagokan ez dugu gola sartzerik izan, baina aurrekoan bi egin genizkien Eibarri eta, beraz, ondo gabiltzala esan daiteke», esan du entrenatzaileak, gogotsu.

Datorren asteburuan Llodio- ren aurka ariko dira: «Partida irabaztera aterako gara, guztiak baitira zailak».

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etortri. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@innoernio.com
www.innoernio.com

Altzo. Etxe bifamiliarrak ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.
Bidania. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.
Errazkin (Nafarroa). Berrizteko

dagoen borda salgai. 140 m²-ko bi solairu eta 1.200 m²-ko lursaila.
Ibarra. Euskalerrria kalearen hasieran. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.
Ibarra. San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua. Estreinatzeko!
Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.
Ikaztegieta. Etxea abikia salgai. Lorategi eguzkitsurekin.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat ebexibizita salgai 155.060 eurotik.
Tolosa. Berazubi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzan jartzeko moduan. 237.400 euro.
Tolosa. Bentaundi. 105 m²-ko etxe polita salgai su baju eta guzti.
Tolosa. Berazubi. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berritua.

Tolosa. San Esteban Auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.
Tolosa. Amaro auzoan hainbat ebexibizita salgai igogailuarekin. Aukera paregabeak!
Tolosa. Zezen Plazan. 87 m²-ko ebexibizita berritzeko igogailuarekin.
Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko ebexibizita salgai. 4 logela (bat bulogo bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.
Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berritutako ebexibizita salgai. Ikusteko modukoa!
Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuna eta bokoa.
Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen ebexibizita salgai.
Egongela ederra. Ezin hobeto!
Tolosa. Larramendi. 2 logela,

egongela, sukaldea eta bainugela.
Trasteleku ederra ganbaran.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126m²-ko ebexibizita berritua, 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua. Berokuntzarekin. Garajea aukeran.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.
Tolosa. Erdialdean. Guztiz berritua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela igogailuarekin eta berokuntzarekin. 321.540 euro.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna aukeran.
Tolosa. Laskurain. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Guztiz berritua.
Tolosa. Gernikako arbola. 140 m²-ko etxe paregabea salgai terraza eta igogailuarekin.

Tolosa. Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.
Txarama inguruan. 100 m²-ko ebexibizita terrazarekin salgai. Egongela su bajuarekin. Lur saila eta garajearekin. Oso egoera onean.
Villabona. Kale Berria. Duela 10 urteko eraikuntza apartamentua berokuntza eta igogailuarekin. Oso polita! 206.000 euro.
Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko ebexibizita salgai. Eguzkitsua.
Villabona. Etxeondo. Pisu garajearekin. Pisu 3 logela eta 2 bainugelarekin.
Villabona. Kale berrian 30 m²-ko garaje ibia salmantan.
Villabona. Kale Berria. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bizitzan jartzeko moduan.
Villabona. Eraikuntza berrian 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Garajea aukeran.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

LABen eta EHAkren aurkako jazarpena

Ezker Abertzalearen ilegalizazio prozesua PP-PSOE Itun Antiterroristaren akordioak bultzatutako Alderdien Legearekin eta euskal burgesiaren kolaborazioarekin aurrera eramandakoa izan da. Motor garrantzitsuenetakoa estatuaren aparatua judiziala izan da, benetako independentziarik ez duela erakutsiz. Prozesu honetik, terrorismoaren aurkako aitzakiarekin, epaitegiak eta kartzelak bete ditu hainbat ordezkartza politiko, instituzional eta sindikalekin.

Hasi berri den urte politikoan, besteak beste, LAB sindikatu abertzaleko idazkari nagusi Rafa Diez deklaratzera deitua

izan da Auzitegi Nazionalako Grande-Marlaska epailearen aurrean ETAkoa izatea leporatuta eta akusazio berbera egin da EHAk-ko eta Batasuneko zenbait kideren aurka. LABen eta EHAkren kriminalizazioa estatu aparatuen sektore batzuen probokazioa da, eta hauen helburua, noski, Anoetako proposamenarekin hasitako negoziazio prozesua puskatzea da.

Momentu hauetan EHAk eta LAB dira Ezker Abertzalearen inguruan legezko moduan dauden entitate juridiko bakarrak. Ehunka delegatu bildu eta milaka langile euskaldun ordezkatzeko dituen sindikatua estatu aparatuen jomugan jarri da, borroka mantendu eta langile klase euskaldunaren indarrarengatik. Gogoratu behar da estatuko konfliktibitate indizean langile euskaldunen

borroka maila altuenean dagoela.

Gaur egun langile asko konbenioak sinatu gabe jarraitzen dute Euskal Herrian, patronala eta enpresariak ez baitaude lan orduak jaisteko asmoarekin, eta beraien apustuak lan malgutasuna eta subkontratazioa dira. Sindikatu abertzalea jasaten ari den erasoak euskal patronalarentzat opari bat dira, eta langile mugimenduentzat eraso zuzen bat.

Ardura politikorik handiena PSOEren zuzendaritzarena da, Alderdi Popularrak erabilitako politika praktikatzeko ari baita. Eskubide demokratikoen murrizketekin jarraitzen du PSO-Ek ere, eta jakin behar du arazo nazionala konpondu nahi badu eskubide demokratikoen defentsa egin beharko lukeela hauek murriztu partez. Nazio

historikoen arazo nazionalaren konponketa Alderdien Legea kentzetik pasatzen da, eta nahitaezkoa izango da autodeterminazio eskubidearen errekonozimendua. Baina benetako demokrazia egoerara eramango gaituen euskal gatazkaren konponbidearen prozesua ez da alderdien mahaitik, elkarriketatik edo negoziatiziotik etorriko. Iraultzaile eta marxistok iritzi hau dugu, ez aukera bat eman nahi ez dugulako, etsita gaudelako edo fatalistak garelako, baizik eta Euskal Herriari behar duen subiranotasun nazionala langile klasearen borrokarekin lortu daitekeelako soilik, kapitalismoa suntsituz. Espainiar oligarkiarekin loturak dituen euskal eskuinak inoiz ez ditu herriaren eskubide demokratiko nazionalak sutsuki defendatu, eta hau zapaltzen dutenei ez diela

aurre egin erakutsi du esperientzia historikoak. PNVk bere lanarekin jarraitzen du, negoziazio prozesuaren alde Batasunak Donostian egindako manifestazioen errepresioa erabili zuen, 30 zauritu inguru eta 7 atxilotuarekin. Burgesiak mundu osoan erakutsi du ez dela gai arazo nazionala konpontzeko eta inperialismoak ez du amore emango («negoziatuz»). Euskal Herri libre baten alde dena eman duten belau-naldien helburua posible izango da, hau da, arazo nazionala eta arazo sozialen konponketa, baldin eta Euskal Herriko, bi estatuetako eta mundu guztiko langileria eta gazteria muga nazionalen gainetik elkartu, boterea eskuetan hartu eta gizarte berri bat eraikitzen hasten bada, gizarte sozialista.

JESUS M. ARANZEGI ETA
IBON ARTOLA ▶ ANOETA

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Beren astea ospatzen ari dira jubilatuak

Biltokian hainbat ekitaldi prestatu dituzte; asteari atzo arratsaldean eman zioten hasiera txupinazoarekin

ERREDAKZIOA

Biltokian aste guztian zehar hainbat ekitaldi izango dira. Izan ere, Villabonako jubilatuek beren astea ospatzen dute. Atzo bertan ekin zioten txupinazoarekin eta ondoren mahai joko ezberdinetan aritu ziren.

Gaur, karta jokoen finalerdia dituzte 17:00etan hasita. Bihar Santiago Egoitzan daudenei bisitaldia. Etzi, osteguna, marmitako lehiaketa egingo dute. Amaitu ondoren, prestatutako marmitakoak dastatuko dira. Ostiralean, Ramon Garate medikuaren hitzaldia izango da, eta gero karta jokoen fina-



Txupinazoarekin hasi zuten atzo jubilatuek beren astea. I. GARCIA

lak Larunbatean, tiro, toka eta bote txapelketak, eta ondoren txistorra-jatea. Igandean, txistulariekin kalejira Jesusen

Bihotza elizaraino. Bertan, meza Eresargi abesbatzarekin. Azkenik, bazkaria Arratzaingoa polikiroldegian.

MUGIKORTASUN ASTEA ▶

Jende ugari igandeko txirrindulari biran

Adin guztietako parte-hartzaileak aritu ziren ekitaldian «giro polita izan zen»

ERREDAKZIOA

Igandean jende ugariak bailarako herriak zeharkatzen dituen Erniopeko Txirrindulari Bira egin zuen. Goizeko 10:00etan eman zitzaion irteera Zizurkilgo Joxe Arregi plazan, ondoren, Aduna, Villabona, Irura, Anoeta eta Tolosako herritarrek txirrindulari birarekin bat egiten zuten beren herrietatik igarotzean. Denak batera egin zuten Tolosatik Zizurkilgo norabidea, tartean Irurako plazan haurrentzat jolasak egin zituzten eta indarberri zeko produktu ekologikoez osaturiko hamaiketako eskaini zieten Zizurkilera ailegatzekoan.

Adin guztietako jendea hartu zuen parte eta «ikuskitun



Igandeko biraren irudi bat. HITZA

eta giro polita izan zen», antolatzaileek azaldu dutenez. Mugikortasun Asteak aurrera darrari, eta ekitaldi nagusienak etzi izango dira, hainbat herritan egingo den Europako Aurtorik Gabeko Egunean.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK

ETXESAGASTI

Albiztur. Baserria salgai. Etxesagasti 943 69 68 56.
Andoain. 3 logelako etxebizitza berritua. Sukalde zabala. Oso eguzkitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.
Larraul. Eraikitzen ari diren azken txaleta salgai. Etxesagasti 943 69 68 56.
Tolosa. Gazteentzako ezinhobe.

Logela bateko apartamentua. Terraza. Etxesagasti 943 69 68 56.
Tolosaldea. Aukera. 100 m2ko etxebizitza ederra. Kanpoaldera. 34m2ko garajea. Berria bezala. Etxesagasti 943 69 68 56.
Villabona. Eraiki berria. Kapritzo. Garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Erdialdean. Berritasuna. Eraiki berria. Bi logela. Ezinhobe. Oso eguzkitsua. Oztoporik gabe. Trasteleku. Garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. Aukera. 2 logelako etxebizitza erdialdean. Berritzea. Eraikin olean. 32.000.000 pezeta negoziagarriak.

Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela. Sartzeko. Etxeurrea egoera olean. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Eskaera handia dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak, lursailak... behar dira Gipuzkoan. Etxesagasti. 943 69 68 56.

LIZARTZA ▶ KULTURA



Arratsalde atsegina pailazoekin batera

I. Terradillos ▶ Pasa den ostiralean Galtzaundi Euskara Taldeak eta Lizartzako Udalak elkarlanean antolatu zuten Pirritx eta Porrotxen *Patata patata* ikuskizuna oso arrakastatsua izan zen. Haur eta gurasoen artean 200dik gora izan ziren Lizartzako pilotalekuan arratsalde atsegina igaro zutenak. HITZA

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA



Onddo erraldoia topatu dute Altzon

I. Terradillos ▶ Josu Garmendiak, bederatzti urteko baliarraindarrak, bere osabarekin batera onddo erraldoi bat aurkitu zuen pasa den larunbatean. Altzoko harrobiaren goiko aldean dagoen pagadi batean topatu zuten saria. Onddoak 1,250 kilo pisatu zituen eta burua 0,88 metrokoa du. IMANOL GARCIA

LIZARTZA ▶ KULTURA

Gaur hasiko dira Kaxiano omentzen

Gaur eta bihar hitzaldiak izango dira, eta larunbatean eta igandean jaialdiak

IÑIGO TERRADILLOS

Hiru urte igaro dira —2002ko urtarrilaren 29an zendu zen— Kaxiano Iburguren Bolinaga, *Lizartzako itsua* edo *Kaxa*, hil zenetik. «Luntasun handienari alaitasunez aurre egiten jakin zuen eta etsipenari lekurik eman gabe, eguneroko ogibidea bizi poz bihurtzen», azaltzen dute bera ezagutu zutenek. Halaber, «herriz herri eskaintzen zituen, bertso saio, abesti eta erromeriak musika eta abestigintza oparoarekin uztartzen jakin zuen, eta ziur esan daiteke horietako abesti asko, hain herrikoiak izanik,

gaurkotasunik, pixka batean, ez dutela galduko», diote. «Lizartza herriaren ezagutza zabalitzen gehien lagundu dutenen artean egonik», herritarrek «ondo irabazitako» omenalditxo bat egitea erabaki zuten, eta hori dela-eta azken hilabeteetan buru-belarri aritu dira lanean bihartik igandera bitartean egingo dituzten ekitaldiak behar bezala irteteko.

Lau egunetan zehar banatuko dira ekitaldiak. Gaur eta bihar Kaxianoren bizitzari buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte: gaurkoan, bertsolari alderdia jorratuko dute, eta biharkoan musikari bezala Ka-



Kaxiano Iburguren Bolinaga, *Lizartzako itsua*. BERRIA

xianok egin dituen ekarpenak izango dituzte aipagai. Bi hitzaldiak 20:00etan izango dira, Lizartzako udaletxean.

Ekitaldi nagusiak asteburuan egingo dira. Horrela, azpimarratzekoa da larunbatean egingo den jaialdia herriko artistek eskainia izango dela; hori gauzatzeko maiatzetik ari dira entseguetan herriko 80 lagun inguru Kaxianoren pasarteak irudikatuko dituen antzerkia, dantzak, bertsoak, garaiko orkestrinak, abestiak... prestatzen. Igande arratsaldean ere jaialdi berezi bat izango da, baina kasu horretan, inguruko herrietako artistek hartuko

dute parte. Gainera, jaialdiaz gain beste hainbat ekitaldi izango dira egun osoan; instrumentu ezberdinez osaturiko goiz deiarekin hasiko dute eguna, eta ondoren meza egingo da; eta, amaitzean, Kaxianoren omenezko eskulturaren (Jaxone Irigoien Aiako artista gazteak eginikoa) aurkezpena egingo dute. Bazkari legea pilotalekuan egingo dute, eta bertara joan nahi duenak txartelak lehenbailehen lortu beharko ditu, Tolosako Agustineña, 66 eta k2 tabernetan. Orexako Kontsun eta Lizartzako tabernetan, ileapaindegian eta supermerkatuan. Halaber, oroigarriaren maketa zozketatuko duten txartelak ere eskuratu ahal dira leku horietan.

Aste honetan *Lizartzako itsua*-ren musikaren, historiaren edo bizitzaren inguruko ekitaldiez gozatu ahal izango da, eta omenaldia antolatzen aritu den batzordeak inguruko herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Lizartzara.

EGITARUA ▶

GAUR

20:00. *Kaxiano herriz-herri* hitzaldia, Gorrotxategik, Lazkanok eta Garmendiak eskainita.

BIHAR

20:00. *Kaxiano soinu*, musikari: Aitor Furundarena eta Jose Ignazio Ansorena.

LARUNBATA, HILAK 24

19:30. Herriko artistek eskainitako jaialdia: Kaxianoren pasarteak irudikatuko dituen antzerkia, soinu-joleak, txistulariak, dantzariak, trikitilariak, herriko eskola, txaranga, garaiko orkestrina, Kaxianoren abestiak, bertsolariak eta dultzaineroak izango dira.

IGANDEA, HILAK 25

10:00. Goiz deia, instrumentu ezberdinekin.
11:00. Meza nagusia: Alegiako Txinbarri abesbatzak Kaxianoren meza abestuko du. Bertsolariak: Lizaso, Lazkano eta Agirre.
Ondoren. Kaxianoren omenezko eskulturaren agerpena, Lizaso, Lazkano eta Agirre bertsolariekin.
14:00. Herri bazkaria pilotalekuan.
Ondoren. Jaialdia bertsolariekin, akordeonistekin, trikitilariekin eta inguratu nahi duten musikariek eskainita.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

SALGAI

Autoa. Volkswagen Golf 4 salgai. 1.6, 16 balbula, 100 zaldi, gris iluna eta hiru ate. Garajejan egona. 2001ekoa. Prezio negoziagarria. 629 55 27 38.

GALDUTAKOAK

Argazki kamara. Argazki kamara digitala galdu dute pasa den irailaren 18an Alkizatik Enriorako tartean. Aurkitu duenak dei dezala 685 76 10 51 telefono zenbakira.

GIZARTEA ▶

Aldarriak eta kirolak, biek Plazaolako bide berdea hartu dute

450 txirrinduzale baino gehiago bildu dira 3. martxan; Uitziko tunela berreskuratzeko sinadurak bildu dituzte



Estazioko jefek eman zien irteera Leitzakoei. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Ibilian-ibilian, 500 txirrinduzale inguru bildu ziren herenegun eguerdiarte Plazaolako trenbidean zehar egin zuten Bide Berdeen 3. Martxan.

Trapagaran, Betelu, Andoain, Berriozar, Eibar... herrialde guztietatik etorritako zaletuek, nahiz bertakoek, luzera desberdinetako ibilbideak egin zituzten. Aipatzekoa da, luzeena izanagatik ere, 40 kilometro, Andoaindik atera zirela parte-hartzaile gehien: 308 txirrinduzale, nabarmena zenez, eskarmetuko kirolariak denak. Lehiaketa ez bazen ere, Leitzako geltoki paretik 10:30erako irago zenik izan baitzen.

Gainerakoetan erreparatu, Leitzatik 100 bat lagun atera zi-

ren Lekunberrirantz. Kasu honetan, irteera gunean gehienbat familia eta lagun taldeek ekin zioten ibilbideari, «kaskoa non duzu?», «tuneletan argia biztu!», edo beste oharpenak eginez txirrinduzaleen artean zebiltzen pailazok irteera eman zirela. Tikienekin, berri, Patzuergoko egoitza ingururik Mugirorainoko ibilaldi laburra egin zuten animatzaile horiek berak. Han, 50 bat haur eta euren gurasoak izan ziren protagonista.

Orohar, beraz, gustura ageri ziren atzokoan ekintza honen antolatzaileak, aurtengo martxa «arrakastatsu» suertatu zela zioten eta. Horretan eguraldi onak «dena egin du», zioten: «Giroa aparta zen eta bideak zeharkatzen dituen paraje

ikusgarrien edertasuna nabarmetzen zuten parte-hartzaile gehienek». Aipatu zuten, ez zen inolako istripu larririk gertatu, oraindik ibilaldia bukatzekoa zegoela, eurena bukatu eta bide beretik aurkako norantzan itzuli zenik izan bazen ere. Zehaztu zuten, gertatu ziren erori bakarrak Uitziko tunelean izan omen ziren. «bertako ur handienak bideratu eta argi batzuk jarri baziren ere», aitatu zuten.

Hain zuzen ere, igandean ekin zioten Uitziko tunela berreskuratzeko eskatuz sinadura-bilketari. Tunel Haundi modura ere ezagun den hau berreskuratu gabe dagoen 2,7 km luzeko tunela da, Tellerikoarekin batera. Patzuergotik Uitziko tunela moldatzeko eskaera, bai Nafarroako Gobernuari, nahiz Estatuko Ingurumen Ministeriozari behin eta berriz egin arren, ez omen dute erantzunik jaso. Hori dela medio, «sinadura hauekin erakutsi nahi dugu, bide berdearen erabiltzaileengandik eta herritarrengandik orohar eskaria badagoela», zioten. Aldarriarekin bat egin nahi dutenek Leitzako udaletxean eta kiroldegian ere eman dezakete beren sinadura edota «gure www.plazaola.org helbidean ere zintzilikatuko dugu», zehaztu zuten.

LEITZA ▶ KIROLAK



Agurra egiteko moduan dira Aurrerako jokalariai. J. ASTIBIA

0-7koarekin, erabateko garaipena Aurreran

Zazpi gol, zazpi golegile, «kalitateko taldea» dagoen seinaletzat jo daitekeela diote

J. ASTIBIA

0 eta 7. Horixe izan zen igandean Aurrerarekin jokatuta Beti Kasedanoren futbol zelai-markagailuak adierazi zuen azken emaitza. Emaitza irmoa, gol kontuetan ez ezik, zelaian egin zen jokoan ere, nagusitasunaren erakusle. Jardunaldiko 3 puntuak zakuaz zituztela itzuli ziren Aurrerako jokalariai etxera.

Eta puntuak bakarrarekin ez gainera, «animoz eta indarrez beteta» ere bai, atzo taldearen ordezkariak azaldu zuten: «Aurreko asteburuko jasan ondoren, behar genuen eta konfidantza hartzeko baliatuko dugu orain», zioten, igandean zortzi Aibaresek irabazi zuten etxeko partidua gogora ekarriz.

Emaitzarekin gustura baudezen, nabarmendu zuten, askoz ere garrantzitsuagotzat jo zuten zazpi golak jokalariai

desberdinek sartu izana: «Golak denen artean banatzea da balizkoa. Aukera izanez gero, aurrelariak ez ezik, golak taldeko edozeinek sar ditzakeela ikusteko», arrazoitu zuten, «ez dagoela bat golak sartzen dituen eta besteak hari bide egiten. Denak, taldea direla», bukatuz. Oraingoan, beraz, Jimenez, Alvarez, Zeballos, Gomez, Arangoa, Harkaitz Ben-goetxea eta Barberia izan ziren golegileak.

Partiduan, bestalde, ez zen «bestelako aipagarririk» gertatu, hasieratik bukaerara leitzarren nagusitasuna nabarmena izan zen, atsedenarako jada, 5 gol eginak omen zituzten eta. «Gu lanerako prest joan ginen barrenean geneukan harantza ateratzera. Aurrean izan genuen taldeari, berriz, ez zitzaizkion gauzak behar bezala atera, ez zen aitalzen. Gure aldera joan zen dena», zioten.

hitza **txokoa** *lagunen*

▶ HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

‘Lagun ezazu HITZA laguntzen’

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Lauburu K.E.-k 1987, 1988, 1989 eta 1990 urteetan jaiotakoak probetara deitu ditu. Bihar da hitzordua, 17:30ean, Belabieta kiroldegian.

Ibarra. Maite Aranalde euskal preso politikoaren urtebetetzea dela eta, argazkia aterako dute, 19:15ean, Kultur Etxe parean. Ondoren, 19:30ean, batzarra izango da Kultur Etxean, urriaren 12an egingo den Elkartzan Eguna antolatzeko.

Tolosa. Iturrija jubilatuen elkarteak irteera antolatatu du San Migelera hilaren 29an. Izen-ematea, elkartean (Euskal Herria plaza).

ERAKUSKETAK

Alegia. Merxe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.

Tolosa. Rosa Maria Ruizen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

MUGIKORTASUN ASTEA

Anoeta. *Udalerrria eta ingurumena* hitzaldia. 20:00etan, Kultur aretoa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Olarrega, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre (107,5 FM)

11:00. 14:00ak arte, *Tolosaldeko Ahotsa*. Eguraldia Joxe Landarekin, albisteak, HITZAko alea, eskualdeko oharra, Juan Unzuetai elkarrizketa Tolosako Mugikortasun Astearen inguruan...

11:55. Herri kirolak, Joxeanjel Sarasolaren eskutik.

12:15. Villabonako Mugikortasun Astearen ingurukoak Amaia Aramendi Agenda 21eko teknikariarekin.

12:40. Agenda.

12:50. Tolosako Azokaren berri Pablo Alberdirenkin.

13:05. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.

13:15. Lehiaketa eta disko eskiniak.

19:00-21:00. 19:00etatik 21:00etara. *Tolosaldeko Ahotsa*-ren errepikapena.

22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lasaitasuna eta jendetza

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Alcoceberren (Herrialde Katalanak) eta Txinan hartutako argazkiak ere lehiatuko dira gurean



ALCOCEBER ▶

Patxi Renobales (Alegia).

Alcoceberren (Herrialde Katalanak) pasatu ditu zenbait opor egun Patxi Renobalesek. Han bertan atera dio argazki hauxe semeari. Arrantzan ari zela, olatu baten zipritzinak jaso ditu alegiarrak.

KARTOIZKO ETXEORRATZAK ▶

Amaia Ruiz de Galarreta (Tolosa) eta Alexander Adurriaga (Ibarra).

«Uda honetan Txina hegomendebaldean kokatuta dagoen Macau hirian izan gara. Orain gutxi arte Portugalen kolonia izanagatik, Europako kulturaren eragina nabari da. Horren ondorioz, kultura eta arraza ezberdinak aurki daitezke hiri berezi honetan, eta erlijio eta ohitura desberdinak ere nahasten dira. Egia esan, hiriak ez du guk hemen ezagutzen dugun txinatar eredu bat betetzen (arroz soroak, bizikleta pila...). Honako hau Macauren ikuspegi panoramikoa dugu, Macauko dorretik atera genuena (338m.). Biztanleria oso altuko hiria dugu, mundu osoan metro karratuko biztanle gehien duenetakoa; ondorioz, etxebizitzak oso garaiak dira biztanleria guztia hirian bizi dadin, eta ez da batere harriztekoa etxeorrazteak josita egotea».



AGURRAK ▶



ZORIONAK, BIKOTE!

Gaur 25 urte ezkondu zirela. Zure lagun birrindulariak.



ZORIONAK

Joakin eta Kontxi (Tolosa). Gaur 25 urte ezkondu zinetela. Zorionak Larraitz eta Urtizren partetik.



URTE ASKOAN

Julen Zubelzu (Elduain).
Gaur urtebete. Zorionak eta muxu bat aita eta amaren partez.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5. behea - TOLOSA Udaltzako bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!